

# Satorralaiaren interpelazioa Udal-Gobernuari/ interpellación de Satorralaia al Gobierno municipal

SATORRALAIA :: 25/03/2021

## [Euskara]

### **SATORRALAIAK DONOSTIAKO METROAREN OBREN INGURUAN GAURKO UDALBATZARRAN AURKEZTU DEN MOZIOAREN HARIRA UDAL-GOBERNUARI ZUZENTZEN DION INTERPELAZIOA:**

Donostiako Metroaren obraren auziari buruz gaurko Udalbatzarran EH Bildu eta Elkarrekin-Ahal Dugu taldeek batera aurkeztu duten mozioa dela eta, Satorralaia bizilagunen mugimenduak gaur goizean elkarretaratzea egin du Udaletxearen aurrean eta Metroa gelditzeko aldarria Udalbatzarren aretoan ere egin du (**argazkiak atxikita bidaltzen ditugu**).

Mozio honen harira honako hau adierazi nahi dugu:

**Satorralaiaren ustez, onartezina da Donostiako Udal-Gobernuak Mirakontxa-Easo tartearen Eraikuntza-Proiektu berrian azpiegitura-lan handi hori egiteak dituen arriskuei buruz egiten diren iragarpen izugarriak jendaurrean isilpean gordetzea.**

Honi dagokionean, **Mozioak ondorengoa azpimarratzen du:**

> Eusko Jaurlaritzak esleitu duen Proiektuan ohartarazten denez, "**baldintza geotekniko oso txarrak dituen zati batekin aurkitzen gara**", eta ondorioz, "**tunela egiteak ehundaka metrotako distantzian lurrazaleran desegonkortzeak eragin ditzake, baita trazadutik oso urrun dauden eraikinen osotasunari ere kalte egin ahal zaiolarik**".

> Proiektu berean irakurri daiteke, bestalde, Urumeako alubialekin kontaktuan egon daitezkeen hautsitako hainbat gune ere topatu direla, eta ondorioz, tunelera ur kopuru handiak sartu direla lanen aurreko fasean. Horrek **obraren segurtasunari eta eraikinen egonkortasunari kalte** egiten die.

> Mozioak nabarmentzen duenez, halaber, **Itsasertzeko Zerbitzuak tunelaren obrak Kontxako hondartzaren errealtitate fisikoan eragin kaltegarria izan duela** adierazi du, eta ondorioz, **obrak gelditu daitezela eskatu du**, harik eta jabari publikoko eremu itsas-lehortarra zeharkatzen duen trazaduaren azterketa oso bat egiten den arte.

> Etabar.

Hortaz, Mozioak eskatzen du Proiektuan ageri diren arriskuak kontuan izanik, **Mirakontxa-Easo tartearen esleipena eta adjudikazioa bertan behera gera dadila** eta Metroaren lanek hirigunean eta eraikinetan eragin ditzaketen ondorioak aztertuko dituen

azterlan geotekniko bat egin dezala erakunde independiente batek.

### **UDAL-GOBERNUARI INTERPELAZIOA:**

**Udal-Gobernuko jaun eta andereak: Mozio hau aurkeztu denez gero, aurrerantzean ezingo duzue gehiago esan Metroaren Proiektuan iragartzen diren arriskuen jakinaren gainean egon ez zaudetenik , eta ohiko inhibizioarekin eta arduragabekeriarekin jokatzen segitzen baduzue, etorkizunean gerta daitekeenaren erantzuleak izango zarete zuek ere, Jaurlaritzarekin batera.**

**Zentzugabeko azpiegitura hori gelditzeko inoiz baino arrazoi sendoagoak daudela aldarrikatzen dugu .**

### **Hurrengo ekimenak:**

Satorralaiak datozen egunetan **manifestu bat zabalduko duela iragartzen du, era guztiako elkartea, talde eta erakunde sozialen atxikimenduak bilduko ditugularik,** hain zuzen ere Metroaren obrak gelditzeko eskakizunarekin bat egin eta Mirakontxa-Easo zatia egiteak dakartzan ingurumen-erasoa, gainkostu altuak eta eraikuntza-arrisku oso larriak kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzari obra esleitzeko eta lanei berrekiteko asmoa bertan behera utz dezala eskatzeko.

Bestalde, informatzen dugu, EH Bilduk deitura elkarretaratzea egingo dela **datorren igandean, hilak 28, eguerdiko 12'30etan Kontxako Erlojuetan**, metro-pasantearen desastrea geldi dadin aldarrikatzeko

### **Satorralaia bizilagunen mugimendua**

Informazio gehiago: [www.satorralaia.worpress.com](http://www.satorralaia.worpress.com)

### **[Castellano]**

### **INTERPELACION DE SATORRALAIA AL GOBIERNO MUNICIPAL CON MOTIVO DE LA MOCION SOBRE LAS OBRAS DEL METRO PRESENTADA EN EL PLENO MUNICIPAL DE HOY:**

Ante la Moción sobre la cuestión de las obras del Metro presentada conjuntamente por los grupos EH Bildu y Elkarrekin-Ahal Dugu en el Pleno de hoy , el movimiento vecinal Satorralaia ha realizado esta mañana una concentración ante el Ayuntamiento y también ha trasladado al salón de Plenos la reivindicación por la paralización del proyecto (**se adjuntan fotos**).

Queremos manifestar lo siguiente con motivo de la presentación de esta moción:

**Para Satorralaia, resulta inadmisible que las advertencias verdaderamente alarmantes presentes en el nuevo Proyecto Constructivo del tramo Miraconcha-Easo en relación a los riesgos que conlleva la ejecución de esta infraestructura sean silenciadas ante la ciudadanía por el Gobierno municipal.**

En este sentido, la Moción subraya que:

- > El Proyecto licitado por el Gobierno Vasco advierte que "**nos encontramos con un tramo con unas condiciones geotécnicas muy adversas**" y ello "**provoca que la ejecución del túnel pueda originar inestabilidades en superficie a cientos de metros de distancia, pudiendo llegar a afectar a la integridad de las edificaciones, incluso muy alejadas de la traza**".
- > En el mismo Proyecto se puede leer que durante la fase anterior de la obra también se han detectado zonas fracturadas que pueden estar en contacto con los aluviales del Urumea, lo que ha provocado importantes entradas de agua al túnel, **con la consiguiente afección a la seguridad de la obra y a la estabilidad de los edificios**.
- > La Moción resalta igualmente que **el Servicio de Costas ha constatado que las obras del túnel han afectado negativamente a la realidad física de la playa de La Concha**, por lo que este organismo ha solicitado al Gobierno Vasco **que las obras queden paralizadas** hasta que se realice un estudio completo de la traza en el dominio público marítimo-terrestre.
- > Etcétera.

Por todo lo expuesto, la Moción solicita que **se suspenda la licitación y la adjudicación del tramo Miraconcha-Easo y que un organismo independiente realice un estudio geotécnico sobre las repercusiones de la obra** proyectada en el espacio urbano y en los edificios.

#### **INTERPELACION AL GOBIERNO MUNICIPAL:**

**Sres/as del Gobierno municipal: habiendo sido presentada esta moción, en adelante ustedes no podrán aducir desconocimiento de los riesgos que constan en el Proyecto del Metro y serán, de persistir en su actitud de inhibición y de irresponsabilidad, junto con el Gobierno Vasco, los principales responsables de lo que pueda suceder en el futuro.**

**Manifestamos que hoy existen una serie de razones más contundentes que nunca para poner freno a esta insensata obra de infraestructura.**

#### **Próximas iniciativas:**

Satorralaia anuncia que en los próximos días va a difundir un manifiesto para recabar la adhesión de todo tipo de asociaciones, grupos y organizaciones sociales a la demanda de paralización del proyecto y para exigir al Gobierno Vasco la suspensión de la licitación y de la reanudación de las obras del tramo Miraconcha-Easo debido a los elevados sobrecostes, el impacto ambiental y los gravísimos riesgos constructivos que conlleva su ejecución.

Por otra parte, informamos que EH Bildu ha convocado el próximo domingo 28 de marzo una concentración a las 12'30h en los Relojes de La Concha para reclamar que se

detenga el desastre de la pasante de Metro.

### **Movimiento vecinal Satorralaia**

---

[https://www.lahaine.org/mm\\_ss\\_est\\_esp.php/satorralaiaren-interpelazioa-udal-gobernuari-interpelacion](https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/satorralaiaren-interpelazioa-udal-gobernuari-interpelacion)